

**J**aurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioan Euskararen Erabile-  
ra Normalizatzeko 2003-2007 aldirako Plana onartu zuen uztailaren 27an (2004-9-8ko EHAA).



Onartu berria hirugarren plangintzaldiari dagokion plana da, eta bigarrenari (1998-2002) zegokiona ordezkatzen du, honekin egindako ahaleginaren jarraipena izanik. Aurreko planean bezala, oraingoan ere Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz Metodologia (AEBEMET) erabili da.

Planak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan izango du eragina. Helburu nagusiak honakoak dira: euskara herritarrekiko harremanetan zerbitzu-hizkuntza ez ezik administrazioari langileen lan-hizkuntza izatea, beste administrazioekiko harremanetan erabiltzea, eta administrazioaren ekintza-eremu desberdinetan hizkuntza-irizpideak aplikatzea.

Administrazio-atala da oinarria Planaren lehentasunak zehazterakoan. Lehenengo, atal bakoitzaren izaera erabaki da. Horrela jendaurreko, gizarte-izaerako, izaera orokorreko eta izaera bereziko administrazio-atalak daude. Ondoren atal elebidunak (E atalak) zeintzuk diren zehaztu da, eta lehentasun-hurrenkera ezarri da gainerako administrazio-atalen artean. Horrela lehen mailako lehentasuna I L atalek dute, bigarren mailakoa II L atalek, III L atalek hirugarren mailakoa, eta IV LG eta V LG atalak lehentasunik gabekoak dira.

Planean aurreikusten diren hizkuntza normalizazio neurriak lau eratakoak dira: neurri orokorrak, hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak, itzulpen irizpideak eta hizkuntza dinamizatzeko ekintzak.

Planean, Administrazioaren jarduera-esparru desberdinetan erabili beharreko hizkuntza-irizpideak eman dira. Arlo hauek hartu dira

kontuan: kontratazio administratiboak, diru-laguntzak eta laguntzak, argitalpenak, administrazioaren irudia, ekitaldi publikoak, eta baimen edo lagapen administratiboen menpe dauden jarduerak.



**H**ainbat eta hainbat dira euskararen Homenetan egiten diren ekitaldi eta jardunak. Horietako bat **Euskararen Nazioarteko Eguna** da, urtero-urtero, abenduaren 3an, Xabierko Frantzisko deunaren egunez ospatzen dena.

Esandako ospakizuna ez da hutsetik abiatutakoa. Badu aurrekaririk. Ezagunak dira, bestek beste, Errepublikara garaian Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaleak Bazkunak bitarte, antolatutako antzerki eta olerti egunak, bertsolari egunak eta antzerakoak. Aipatzekoa da, bestalde, Espainiako Guda zibilaren ondorioz Iparraldera alde egin behar izandako euskaltzaleek zein bertokoez, elkar hartuta, Euskaltzaleen Biltzarren babespean egindako lana. Sasoi horretakoa (1949) da, hain zuzen ere, Lehenengo Euskararen Eguna.

1995ean, Euskal Herritik kanpora bizi diren euskaldunek egindako Lehen Mundu Biltzarrean eskatutakoa bere eginez, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak elkar hartu zuten eta, ondorioz, Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu. Geroztik, urtero-urtero, Erresuma Zaharreko santu euskaldunaren egunez, ospatu izan dute euskal erakundeek Euskara-

ren Eguna. Lehendakariaren deiarri jarraituz ehunka lagun batzen da eta gorazarre egiten die euskarari eta euskaldunei.

**E**uskal kulturak hiru gizon handi galdu ditu berriki. Horietan lehena, Manuel Mitxelena, (Irun, 1914 – Hendaia, 2004), irailaren 22an hil zen. Euskera-frantses hiztegia egin zuen, eta euskararen gramatikari buruzko hainbat artikulu ere idatzi zituen.

Hilaren 26an, aldiz, Manuel Agud Querol (Argentina, 1914 – Donostia 2004) zendu zen. Hizkuntza eta Literatura Grekoko katedraduna, hizkuntzalaria eta UPV-EHUrren bultzatzailea izan genuen. Gipuzkoako Foru Aldundiak 1953an sortu zuen Julio Urkijo Euskal Filologia Mintegiko kide izan zen. Zenbait lan idatzi zuen Koldo Mitxelena eta Antonio Tovarrekini batera.



Azkenik, urriaren 4an, **Martin Ugalde** (Andoain, 1921 – Hondarribia, 2004) hil zen. Idazle, kazetari eta politikari izan zen. 1936ko Espainiako Gerra Zibilak erabat baldintzatu zuen Ugalderen familiaren patua. Martin Ugalde Venezuelara erbesteratu zen 1947an, eta hango kazetaritzaren erreferenteetakoa egin zen. 1969an itzuli zen Euskal Herrira, eta atzerriko Eusko Jaurlaritzako kide izan zen. Geroago, 1982tik 1985era, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari izan zen, eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren sortzaileetakoa. Ipuin, nobela, antzerki-obra, biografiak eta historia lanak argitaratu zituen, hala euskaraz nola gaztelaniaz. Martin Ugalderi buruzko berri gehiago nahi izanez gero, jo Bidegileak bildumara ([www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)).



**E**uskal Herriak ere ordezkaria du IBBY-n (International Board on Books for Young People). 1953an sortu zenetik, nazioarte mailan haur eta gazte literatura nahiz irakurzaletasuna sustatzea ditu helburu erakunde horrek. IBBY-k udan egin zuen biltzarrean **Mari Jose Olaziregi** irakaslea erakundeko batzorde eragileko kide izendatu zuen.



**E**uskararen erabilera euskaldun berrien artean sustatzeko bideak urratzen ari dira batean eta bestean: Mintzalaguna, Berbalaguna, Zahar berri, Ari gera, Ostabe, Egizu, Mintzakide... Egitasmook helburu bat bera dute: euskara ikasten ari diren helduei lagun euskalduna topatzea, ikas-prozesua azkartu eta euskaltegitik komunitaterainoko jauzia egiten laguntzeko.

Gisako ekimenak garrantzi handikoak dira eta gero baino gero ugariagoak Euskal Herrian, euskaldunak nagusi ez diren herrietan, batik bat.



**B**erripaperaren abuztuko zenbakian adierazi genuen INEMek lan-kontratuak euskaraz egin ahal izateko inprimakiak enpresen eskura jarri zituela. Orain, berriz, kontratu-ereduen bertsio berritua dugu albiste, Interneten jarri baitituzte, pantailan bertan betetzeko moduan gainera. Bertsio digitala ez ezik, paperezkoa ere nahi izanez gero, jo [www.erabili.com](http://www.erabili.com) web-gunera edo enpresasak@ej-gv.es helbidera.



**L**uberri, bertso lurra berritzen" izeneko ekimena sortu du Bertsozale Elkartek, Euskadiko Kutzaren laguntzaz. Tradizio handikoak ziren herri batzuetako bertso saioak berreskuratzea da helburua, tokian tokio bertso-eskola eta bertsozaleekin elkarlanean. 30 saio antolatuko dira, urrian hasi eta martxoa bitarte.

Gaiari buruzko informazio gehiago, Bertsozale Elkartean ([www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)) edo Xenpelar Dokumentazio Zentruan.



**E**spainiako lau hizkuntza ofizialak erabiltzea helburu duen Organizació pel Multilingüisme – Eleaniztasunaren Aldeko Erakundea sortu zen orain dela bost urte Katalunian. Egun, Espainiako zigiluetan estatuko hizkuntza ofizial guztiak ager daitezten ari da lanean, posta zerbitzuak hizkuntzen aniztasuna berma dezan. Horren harian, zigilu eleaniztak eskatu dituzte. Gaiari buruzko azterketa zehatza egiten duen liburuxka ere kaleratu dute, proposamen eta soluzioak ere eskainiz.

**O**hi denez, abenduarekin batera etorriko da aurten ere Durangoko Liburu eta Disko Azoka. Aurtengoa, 39. edizioa, abenduaren 4tik 8ra egingo da.



**A**urten Bai fundazioak, eta *El Diario Vasco* nahiz *El Correo* egunkariak Hator aurkeztu dute, euskarazko Internet atari berria ([www.hator.com](http://www.hator.com)). Bertan, hamaika eduki ditu aukeran internauta euskaldunak, dela musika, zinema edo unibertsitateko oharrak. Hator-en atariak bost atal ditu: Aisia, Boga, Komunitatea, Zerbitzuak eta Euskara.

Web atari berri hau euskaldun guztientzat dago zabalik, haien euskara maila zeinahi dela ere.



**E**uskal Hizkuntza Komunitatearen Bizindar Etnolingüistika izeneko argitalpena kaleratu du Soziolingüistika Klusterrak bost udalekin bat eginik (Andoain, Arrasate, Bergara, Hernani eta Lasarte-Oriakoekin). Ibon Usarralde eta Iñaki Martínez de Lunak burutu dute azterketa eta, bertan, bizindar etnolingüistikoaren eta euskararen erabileraren arteko erlazioan sakontzen eta erlazio horren intentsitatea zenbatekoa den azaltzen ahalegindu dira.

**H**izkuntzaren kalitateari buruzko argitalpen berri bat erabili genuen hizpide *Berripaperaren* aurreko alean. Oraindik orain, berriz, gai berari buruz jardun dute UPV-EHUko irakasle diren Luis Mari Larrigan eta Itziar Idiazabal irakasleek. Azpeitiko Euskara Patronatuaren web guneko "Iritzi-muinetik" atalean ageri da bi irakasleon lana, "Euskararen kalitatea aztertzeko teoria eta metodologia" du izenburu eta gaiari buruzko azterketa zientifiko sakona eskaintzen du.




# euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA

Topagunea, Euskara-elkarteen federazioa, 1996. urtean Euskal Herriko hainbat euskara elkarte sortutako elkargoa da. Bere jardura eremua euskara elkarteek mugatzen dute. Irabazi-asmorik gabeko elkarte hau zazpi urte hauetan sendotzen joan den errealitatea da. Euskara-elkarteak indartzen eta berriak sortzen joan diren heinean, bere lekua egin du euskalgintzan. Gaur egun Topaguneak 75 euskara-elkarte biltzen ditu eta urtetik urtera federazioa hazten ari da. Hona hemen horiek:

Izena	Eremua
Abarrak Euskara Elkarte	Arrigorriaga
Arrekikili	Larrabetzu
Asapala Kultur Elkarte	Mahatserría (Bilbo)
Austarri-Korta Kultur Elkarte	Zeberio
Axola elkarte	Abanto
Barriketan Euskara Elkarte	Elorrio
Batana Batu	Mahatserría (Bilbo)
Berbaizu	Deustua
Berbaro	Durango
Berbetan Euskara Elkarte	Balmaseda
Berbots Erandion Euskaraz	Erandio
Bizarra Lepoan	Getxo
Boluntzarreta E.B.E.	Uribe Kosta
Durangaldeko Herri Komunikabideak	Durangaldea
Eixu! Zaldibarko Euskara Elkarte	Zaldibar
Euskal Birusa Elkarte Kulturala	Ermua
Euskarabila Euskara Elkarte	Basauri
Euskeraz Berbetan	Bermeo
Ganoraz	Arratia
Gurien Bai	Iurreta
Lagatzu	Zamudio
Mungia Euskaldunduz	Mungia
Totoan K.E	Txorierrí
Tximintz elkarte	Derio
Urdulizko Euskara Taldea	Urduliz
Zenbat Gara	Bilbo
Zertu K.E	Arratia
Zorriketan	Lezama

Izena	Eremua
Basalarrina	Laudio
Geu Elkarte	Gasteiz
Hogehitalau	Aiara
Ttiki-Ttaka	Arabar Errioxa



Izena	Eremua
Bierrik Elkarte	Sakana
Biltoki	Txantrea (Iruñea)
Karrikaluze	Atarrabia
Karrikirí elkarte	Iruñea
Mailope Kultur Elkarte	Araitz-Betelu
Ttípi-Ttapa Fundazioa	Bidasoa, Baztan, Malerreka,...

Izena	Eremua
Abaraska Euskara Elkarte	Pasaia
Arrasate Euskaldun Dezagun	Arrasate
Arrasate Komunikabideak	Arrasate
Axtroki Kultur Elkarte	Eskoriatza
Bagera Euskara Elkarte	Donostia
Baleike aldizkaria	Zumaia
Danbolin-Zulo Kultur Elkarte	Zestoa
Dobera	Hernani
Donostiako Komunikabideak	Donostia
Elgoibarko Izarra	Elgoibar
Ekin Emakumeak elkarte	Arrasate
...Eta Kitto! Euskara Elkarte	Eibar
Euskal Hazia elkarte - Amasa	Pasaia
Galtzaundi Euskara Taldea	Tolosa
Goibeko Kultur Elkarte	Elgeta
Goiena	Deba Goiena
Goierriarrak Kultur Elkarte	Goierri
Gure Txeru	Getaria
Hitzaro	Ordizia
Ilati Euskara Elkarte	Idiazabal
Irun Iruten	Irun
Jardun	Bergara
Karenka	Mutriku
Karkara Taldea Kultur Elkarte	Orio
Laixan	Oñati
Lau Haizetara	Errenteria-Orereta
Loramendi Euskara Elkarte	Aretxabaleta
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna	Andoain
Maxizatzen Euskara Elkarte	Azkoitia
Noaua! Kultur Elkarte	Usurbil
Orratz! Kultur Elkarte	Lezo
Pil-Pilean Kultur Elkarte	Soraluze
Ttakun Kultur Elkarte	Lasarte-Oria
Txaparro	Zarautz
Txatxilipurdi	Arrasate
Uztartzen Kultur Elkarte	Azpeitia
Zuhatza	Deba

## hitza

Euskal prentsa ugalduz doa. Urriaz geroztik kalean da **Goierriko Hitza**. Honekin batera bost dira *Hitza* izenburua daramaten egunkariak: Tolosaldekoa eta Leitzaldekoa, Oarsoaldekoa, Lea-Artibai eta Mutrikuakoa, eta Urola-Kostakoarekin batera.

Herri informazioa egunero euskaraz emango du *Hitza*-k, euskararen normalizazioari lagunduz, milaka herritar jarriko baititu, asteartetik igandera, euskaraz irakurtzen.

Omenaldia jaso zuen joan den irailan Jose Luis Alvarez Enparantza **Txillardegí**-k Elkar argitaletxearen eskutik. Idazlearen 75. urtebetetzea ospatu zuten haren bizialdia landu zuten hiru hitzaldiren bidez. Era berean, Txillardegiren liburu berri bat ere argitaratu zuen Elkar argitaletxeak: *Euskararen aldeko borrokan (Euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak, 1956-1983)*.

Urrian, berriz, UEU-k omendu zuen Txillardegí, hitzaldi zikloa antolatuz.



Deustuko Unibertsitatearen Euskal Gaien Institutuak eta IVAP-HAEE-k Hizkera juridikoa eta itzulpegin-tza: Euskararen norabideak izeneko jardunaldiak antolatu dituzte. Jardunaldiok azaroaren 17 eta 18an izango dira Deustuko Unibertsitatearen Entzungelan. Hitzaldi, mahai-inguru eta jardura guztiak euskaraz izango dira. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo helbide horretara: [www.iev.deusto.es/novedades/terminologia](http://www.iev.deusto.es/novedades/terminologia).





**E**USTAT-Euskal Estatistika Erakundeak egin-dako 2004ko bigarren hiruhilekoari dagokion "Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta: Familiak" lanaren arabera, **EAEko 98.000 lagun** dabil euskarazko web guneetan. Web gune horietako asko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza dute.



**I**raileko *Berripaperaren* alean Kulturaren Euskal Plana izan genuen hizpide. Orain, plana aurkeztu egin dela esan behar dugu. Irailaren 28an egin zen aurkezpena, Bilboko Euskalduna jauregian, Lehendakariaren gidaritzapean.

Planak eragile publiko eta pribatuen arteko adostasuna du xede, euskal kulturari buruzko ikuspegi estrategikoei, jarduera irizpideei eta lehentasunei dagokienean, eta Plan Estrategikoa da bere zentzu osoan.

Aurkezpenarekin batera, Planaren berri ematen duen argitalpena kaleratu da, eta eskura da Interneten ere: [www.euskadi.net/kulturaplana](http://www.euskadi.net/kulturaplana).



**2**002. urtetik aurrera eta, bereziki, 2003an Gasteizen ospatu zen Euskal Gizataldeen Mundu Biltzarrean hartu ziren konpromisoen ondorioz, indarberritu egin da euskararen irakaskuntza munduan. Batetik, eremu berrietara jo da irakaskuntza hori zabaltzeko asmotan: euskal etxeetara ez ezik, tokian tokiko unibertsitateetara egin du sarrera euskarak. Bestetik, baliabideak erabat garatu dira: garai batean, gaztelaniatik abiatu behar zuen euskara-ikasleak; 2003ko Mundu Biltzarraz gero, ingelesetik eta frantsesetik abiatzeko moduko materialak prestatu dira. Azkenik, jarduera diruz laguntzen da gaur egun, garai batean ez bezala; deialdi berezia bitarte, euskal etxeek euskararen irakas-prozesua diruz laguntzeko eskaria egiteko modua dute. Ondorioz, egun, **1.800 ikasle baino gehiago** dira nazioartean euskara ikasten ari direnak; 1990ean, aldiz, 500 ere ez ziren.



**T**oki-entitateen 2004ko deialdian esleitu dira jadanik aurtengo diru-laguntzak: ia **1.743.000 euro** banatuko dira guztira 113

entitateen artean. Aurten bereziki lagundu dira EBPn plana abian duten edo abiarazi duten udalak, bai eta euskararen udal barneko erabilera-plana prestatzen ari direnak.

Enpresa pribatuei dagokien deialdian, berriz, 961.000 euro inguru banatu dira 82 enpresa-eren artean, beren erabilera-planak garatzeko, dela langileei, dela bezeroei begira, edo, zenbait kasutan, bie.

**E**sleitu dira 2004ko Literatura Unibertsala itzulpen-lehiaketako lanak. Honako hauek dira EIZIEk Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz urtez urte egiten den lehiaketa publikoari dago-kienean aurtengoa esleitu diren izenburu eta itzultzaileak: Jean Rhys-en *Wide Sargasso Sea* (Txomin Arratibel). Malcolm Lowry-ren *Under the Volcano* (Karlos del Olmo). Dorothy Parker-en *Ipuinak* (Mirentxu Larrañaga). Tennessee Williams-en *A Streetcar Named Desire* (Xabi Paya). Antonio Tabucchiren *Piccoli equivoci senza importanza / Donna di Porto Pim* (Fernando Rey), eta Danilo Kis-en *Hildakoen entziklopedia* (Monika Etxeberria).



**U**rtero bezala, laster batean banatuko dira Euskadi Literatura sariak: azaroaren 23an hain zuzen ere. Aurtengo honako hauek sarituko dira: Jesus Mari Olaizola *Txiliku* haur literaturaren alorrean (*Osaba Bin Floren*); Anton Garikano itzulpen onenarenean (*Bederatzietatik bederatzietara*); Eduardo Gil Bera gaztelaniazkoan (*Historia de las malas ideas*); eta Jokin Muñoz euskarazkoan (*Bizia lo*).



*Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz*

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: [l-sosoaga@ej-gv.es](mailto:l-sosoaga@ej-gv.es)